

# "PRINCIPE DE VIANA"



SUPLEMENTO EN VASCUENCE  
DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

Coordinador para el Suplemento  
en Euskara  
MARCELINO GARDE

XVII'gn. urtea  
153'gn. zenbakia

Iruña - 1983 - Ekaina

Franc. conc.  
N.º clas. 34/60

Director en func. de la Inst.  
Príncipe de Viana  
J. JOSE GRAU

## Lan «arlotetik» iges

Ementxe bertan esan izan dugu, gaur-egun guraso guztiak beren umeak gizartean goieneko maillara jaso nai dituztela. Ez duela inor bere semerik arotz, nekazari, edo kixuskille ikusi nai. Mundu guztiak bere umeak mediku, edo injenieru, edo letradu, ikusi nai dituela.

Orrela, lenen mailleko ikasketan zearo uts eta motz eta baldar agertu ez ba'da beintzat, edozein mutikok eta edozein neskatok badaki Unibersitatera bidalia izango dela. Baita oso azkarra ez ba'da ere! Baita ikasketarako gogo aundirik ez ba'du ere!

Onek ondorio latzak dakarziela ikusi genduen, gai ontaz mintzatu giñanean: Unibersitate-tituludun geiegi ateratzen zaigula, bear ditugunak baiño geiago Tituludun oietatik asko lanik gabe gelditzen direla, eta, Españi'ko tituluek atzerrian balio ez dutelako, emen lanik gabe dauden tituludun oiek atzerrira lan-billa joaterik ez dutela izango. Eta, batxilleratoko ikastetxetan jende geiegi dagolako, jendea gaizki prestatua igarotzen dela unibersitateetara; eta auek ere jende geiegi, eta jende gaizki prestatua gaiñera, artzen dutelako, naita-naiez beian jarraitu bearrean aurkituko direla.

Zergatik ote da, gure jende landerraren arteko unibersitate gose au?


Bâ, orrexegaitik lendabizi: landerra izatez uzteko. Mediku izateko egokitasunik izan ez duen

orok bere semea edo bere alaba mediku ikusi nai du. Orrela ez bait da bera gizakume txiro lander bat izango; erriko medikuaren guraso izango da, D. Fernando'ren aita edo ama...

Importantzi aundiko gauza bat aztuarazi digu arrokeriak: lan

zintzoa baldin ba'da, gizakumearen lanak beti balio berdiña duela, naiz lan ori batzuetan besteetan baiño itxura politagoakoa izan. Mediku baten lana ez dela nekazari baten lana baiño balio geiagokoa. Lanaren balio ez dagola

(urrengo orrialdean)



(aurreko orrialdetik)

lanak irabazten duen diruan; ezta lanak gizartean izan lezakean is-timazioan edo dizdiran. Lanaren balioa gizarteari lanak egiten dion serbitzuan dagola!

Eta lankera guztiak bear ditu gizarteak: soroetako nekazariena, fabriketako langilleena, ikastetxe nagusietako irakasleena, eta su-kalde bazterretako etxekoan-dreena.

Gaur ordea, ez du inork langi-lle arrunta izan nai. Arrokeriaren aizeak jo gaitu. Arrokeriaren ai-zeak galduko gaitu.

## DIPUTAZIOAREN ERABAKIAK

**EUSKAL-IKASTAROA.** EGB'ko Irakas-lendako euskal-ikastaroa antolatu du Na-parroa'ko Diputazioak. Ikastaro onek 53 egunez -318 ordu- iraunen du. Gaia, Euskera bera, baita eskolako gaiak eus-keraz emateko modua ere. Leitza'ko Lan-ikastetxean bilduko dira 30 lagun (ez bait da leku geiagorik) Ekain, Agorri eta Iraila-ren egunetan.

### KONPONKETAK

**AURITZ** (Burguete): Milloi erdia jarriko du Diputazioak erriko erditik joaten den bide-zabalaren konponketan.

**ELIZONDO:** Milloi erdia, XVIII'gn. men-deko «Istikonea» Jauregiaren konponke-tagatik.

**IGOA:** Elizaren teillatuagatik, 110.130 pzt.

**ZUBIETA:** Karriketako konponketan, az-ken epearen laguntza, 273.990 pztakin.

**ZUGARRAMURDI:** Elizaren berritze gastuetan, Aldundia sartuko da 813.933 pztakin.

### ITZALPIDEAK

Oyan-errete kontra, aurten 35 milloiko gastua erabaki du Aldundiak; itzalpideak egiten erabiliko dute diruaren geiena. Urrengo lekutan idikiko dira itzalpide oiek: **BEUNTZA**'n; **OLABE-SORAUREN**'go Mu-gan; **YABAR**'en; **ETXALAR**'ko Erimendi'n; **LESACA**'ko Egitzaler'en; **IGANTZI**'ko Anyo'n; **EZKAROTZ**'eko Yasule'n; **ERRONKARI**'ko Aramizkirria'n, **ERRO**'ko Erran'en, e.a.

### OYAN-EPAITZEAK

Zenbait zugaitez-epaitzeko baimena eman du Diputazioak:

**AEZKOA**'ko Batzarre Nagusiarri zugaitzak saltzeko 74 milloi eta geiagoko trukean.

**ARBITZU**'ri, Uskain eta Mezeden'go 3.512 fago ta ler, 3.017.436 pztetan.

**BERTITZ**'en oyan-garriketa egin deza-ten Gil Anaiek, zugaitez autsiak ateratzen, 1.812.000 pzt. ordainduz.

**BIDASOA**'ko Arduradun Batzarrari, Ber-roaran'go 4.296 ler edo piñu saltzeko 2.476.800 peztaren trukean.

**EGOZKUE**'ri 305 fago, 2.476.800 pezte-tan.

**ETXARRI-ARANATZ**'i, 617 fago, aritz eta ler zugaitez. Labarga, Basabe ta Epe-le'ko 1.682.085 pztaren trukean.

**GARAYOA**'ri, Bordaburu'ko 780 fago ta aritz, 3.423.750 peztetan.

# EUSKAL ERRIKO LEIOA

## AMAZAZPI LAN-POSTU ETA 2.768 PERTSONEK IZENA EMAN

Gertaera xelebreak gugandik urruti gertatzen oi ziren leen; gaur-egun, or-dea, Nafarroa'n gertatzen dira antze-koak.

Baiki, Nafarroa'ko Aldundiak 17 lan-gille bear ditu Administrazio laneta-rako; ta orra or, berak egin zuen deiari 2.768 eske-erantzun aurkeztu.

Orain bi urte egin zen antzeko deiari, 1969 lagunek erantzun zioten; orduan, 16 langille bear ziren.


Zori txarrez, «Nafarroa beti aurrera» esakera zaarrak badu bere lekua oraingo afera negargarrietan. Geroago ta aundiagoa da lan gabe daudenen kopurua: 30.000 eta geiago.

## NAFARROA'KO BURNIZKO ZUBIAK

Gizaldi onen asieran Nafarroa'n bur-nizko zubiak guztiz modan jarri ziren. Zankotza (Sangüesa), Kaparrotsu, Mi-lagro, Gares (Puente la Reina), Kar-gaztulu (Carcastillo), Erro, Barasoain,

Muez eta abar dira orrelako injeneri lan arrigarriak izan dituztenak. Baiña mundu ontan ez da gauzarik betiko denik eta ikus-eziñekoa den erdoiak gogorra dirudian burnia azkenean menderatu egiten du.

1937'go Iraila'ren 27'an izan zen ugoldeak eraman zuen Kargaztulu'ko zubi luzea; ba-zituen 111 metro luze ta



Kargaztulu'ko burni-zubia: 1903'gn. urtean irikia; eta 1937'ko Iraila'ren 27'ganean, ez siñesteko uralde batek eramana.

## Euskerazaintza

**EUSKERAZAINTZA**'K, Euskeraren Erri-Akademia'k Ekainilla'ren 25'ean egin du illeroko Batzarra, Akesolo'tar Lino jaunaren lenda-karitzapean, bera danez Euskerazain-burua.

Aurreko Batzar agiria onartu ostean, Akademi-alorreko gai ta lanen ikerketan jarraitu du, Batzorde bereziaren bateratze-lanak aztertuz batetik, eta gai berriak lan-talde beraren esku ipiñiz bestetik.

**DUDEN**, irudibidezko iztegia euskeratzea buruturik dagoanez, millaka ta millaka itz oien lerrokatze egokia aixa lortzeko asmoz, makinetan sartzen asiak diranezko berria jaso du Batzarrak.

Euskerazaintza'ren iraupenerako ta iker-lanetarako, bai euskal-erakundeei ta bai Estadukoei diru-laguntzak eskatzen jarraitzea erabaki du Batzarrak. Eta ontan guztiz arrigarri ez-ezik mingarri ere gertatu zaio Batzar oni, ain zuzen ere EAJ-PNV'ren ordeztu Madril'go Cortes'etan itza atera zuan Olarte jaunak -**EUSKERAZAINTZA** ixillean utzirik- erakunde bakarrarentzat eskatu izana Estaduaren diru-laguntza, aldebakarkeria latz eta nabarmena bai-da ori.

Joan zan illean Estaduko Gobernu-buruari idatziriko eskutitzaren erantzuna artu du orain Euskerazaintza'k, ain zuzen ere Felipe González Presidenteak berak izenpetua: guztia bearrekoa dalarik ere, Felipe González Presidenteak berak izenpetua: guztia bearrekoa dalarik ere, aintzakotzat artzearen aitortpena da ta asmo berririk ere agertzen du aurrerako.

# IRRIFARRA TA GAZTE IZATEA ERIOZAK ERAMAN

eusgarri bezala abe bat bakarra, erdian. Eta joaneko urtean, berriz, jausi zen Gares'koa, zergatik erori zen oraindik gauza ziurrik ez dakigularik.

Gelditzen zaizkigun burnizko zubi oiek azertu bearrean aurkitzen gera; lenbailen eta ondo azertu ere. Nola dauden, nola zaindu daitezken, zenbat pisu jasan dezaketen...

Goian aipatu dugun zerrendan badirudi Aldundia Luzaide'koarekin aaztu egin dela; eta ango gure adiskideak ez dira pozik aazte orrekin. Eta arrazoiz. Izan ere badu bere garrantzia zubi orrek, bi aldetako anaiok elkartzen gaituen zubia bait da.

## JULIO CARO BAROJA, SARITUA

«Príncipe de Asturias» saria urteoro banatzen da. Eta aurten Gizarte Zientzietan dagokion saria, ain xuxen, nafar batentzat izan da: Julio Caro Baroja'rentzat.


Saria, Joan Miro'k egiñiko irudi bat da ta dirutan, berriz, bi milloi.

Ekainilla'ren 9'an esan zioten berari, baiña sariaren erabakia urrengo egunean eman zen argitara. Berak esan duenez, etzekien sari ortarako autagari zenik ere. Edozeini ere orrelako sari batek poztasun aundia ematen dio, ta Julio Caro Baroja'ri poza eman diola ezin ukatu.

Gu ere pozten gera, nola ez, gizon onen lan isilla ezagutua izan denean. Beraz, ZORIONAK, D. Julio!

**NURIA SANCHIZ**  
eta  
**JOSEAN BERNAL**  
ezbearrez il zazkigun  
bi gasteiztar  
gazteak.

**Eskoletako  
Kirol-Joku batetara  
zijoazten pozik,  
eta Frantzia'ko  
Bordel'en (Bordeaux),  
eriotzak  
moztu die bidea.**



Ill ontan albisterik garrantzitsuena Araba'n, gasteiztar bi gazteen eriotza izan da.

Nuria Sanchiz'ek 13 urte besterik ez zituen, eta Jose Angel'ek 19. Burdeos'en il ziren auek beren autobusak beste kamioi bat aurrez aurre jo zuten. Troyes'era zijoazten eskola kirolean parte artzera.

Bizitzaren edertasunean beren ideala erabat moztuta gelditu dira. Esan bear, baita, egun berean. Bettina'k, Nuria'ren aizpak Sendotza —edo Konfirmazioa— artu zuela Gasteiz'en euskeraz egin

zen elizkizun eder batean. Bestalde, Jose Angel Troyes'en jaioa zen, eta an bizi zaio anai bat ezkondurik, eta bera ikusteko ilusioa zeukan.

Nuria gaztea, Olabide ikastolan ari zen ikasketak egiten, euskal zalea zen eta ikastolan argia.

Gazteak ziren eta irriparra besterik ez zuten euren ezañetan. Etorkizunari begira bizi ziren eta bazegoen etorkizuna auengan.

«Kirol-zalea sufritzen eta borrokatzen dakien pertsona bat da —esan zuen J. I. Oregi'k illeta mezatako itzaldian—; sariaren poza ta galtzaille izatearen garrantasuna ezagutzen dituen».

Zuen irriparra gurekin gelditzen da, zuen oroipena gurekin gelditzen den bezala.

## FRANTZIA TA ASKATASUNA

Ill onen iruan iritxi zen Frantzia'ko Presidentea den Mitterrand jauna Kortzega'ra, iru milla polizi aurretik zituela.

Bertan korsoek duten bereiztasuna ezagutu zuen, baiña Frantzia'ko Errepublikaren barruan.



**Frantzia'ko Presidenteak Kortzega'n:**  
«Esan dezaket eta esaten dut...» Bla-bla-bla! (NAVARRA HOY-EFE argazkia).

## Garaikoetxea Lendakaria, Ameriketara

Carlos Garaikoetxea, Euskal Erriaren Lendakariak, bere lenengo ateratzean Panama, Venezuela eta Colombia bisitatu ditu.

Bere elburua bat baiño besterik ez: amerikarrei eskerrak ematea, euskaldunak estu ta larrialdian aurkitzen zirenean aien laguntza izan zutelako.

Noski, orren ondorio bezala izan dirabeste jo-muga batzuk, esate baterako, ango enpresarioekin ere arremanak izan zituen eta orrela Euskalerrri'ko industria zabalgo biurtu dadin ateak zabaldu.

Panama'n argi ta garbi adierazi zuen Euskal Autonomia zer den, bertako telebistan. Euskal Autonomiak badituela bere eskubideak eta konpetentziak zenbait alor garrantzitsuetan, «nazio federal bati dagokion konpetentziak izan ezik».

Venezuela'n, ango euskaldunekin batera, izan zen Garaikoetxea Lendakaria Bolibar Ximun aundiaren omenean egin ziren ospakizunetan. Esan gabe doa nola artu dute ameriketarrek euskaldunen Lendakaria.

Ez dugu aaztu bear Jose Antonio Agirre'ri buruz izan zuen oroimena, guztiz ongi ta atsegiñez onartua izan zelako Ameriketako ordezkariak.

Eta, gu, nafar geranok, pozik sentitzen gera nafar bat izan delako, euskaldun guztion izenean, Amerike'tara egin duen ikus-taldi orrekin eta bear zen lekuan egiaren alde esan dituen itzengatik.

Mitterrand jaunak Ajaccio'ko Foch enparantzan egin zuen bere itzaldia ta bi milla pertsona baiño geiago bildu ziren berari entzutera.

«Berezitasuna», «Estatutoa», «Bereiztasuna» itzak erabili zituen Körtzega'ko ugarteari buruz mintzo izan zenean, «korsotarren bereiztasuna» ta erri onen «kultura» onartzen zituela aitortuz.

## NAFARROA'KO ESKU-LANGINTZA II'GN. ERAKUSKETA

Bigarren aldiz ospatu da, aste betez, esku-lanen erakusketa au.

Antziñako ofizioak gaurko gazteen-tzat ezezagun. Eta ezagutzen ez dituztenentzat antolatatu zen erakusketa au ongi zaindutako Iruña'ko Ciudadela'n; ongi zaindutakoa esan dugu, ongi esan ere, au bera ere gizonak egin zuten lan ederra bait da.

Burni lantzaille, arri ta egur lantzaille, irule ta beste eun bat ofizioetako langilleak an aritu dira lan eta lan ikaragarriko maixutasunarekin jendearen arrigarri.

Gero ta gutxiago dira eskuz lantzen diren gauzak eta eskuz egiten diren lanak; industriaren atzaparretan erori da guztia; egunetik egunera urriago dira artistak. Ala ta guztiz ere Nafarroa'k gai ontan eman eta erakutsi dezakeana aberatsa da.

Aste ortan igaro diren ikusleak 60.000'tik gora izan dira.

Gure eskerrik beroena erakusketa onen zama guztia euren biskarretan daramatenei; eta berdiñ, esku-lan oiek egitera ta erakustera joaten diren guztierei ere.

Eskerrak, baita, egunkari ta irrati bidez orrelako berriak ematen saiatzen diren berri-emalleeri.



Saragueta Zubiri'tar Markox, Mezkiriz'koa, zurezko esku-langintzan –gollareak egiten– anitz trebea. (EZKURDIA argazkia).

# Aita Santua Polonia'n bere jaioterrian



Aita Santua, Jasna Gora Monastégiko aurrean bildu zen jendetza –milloi bat baiño gelago–, bedeinkatzen, Santutegiaren seigarren mendeurrena ospatzeko Meza eman ondoren; antxe gorde dute Czestochowa'ko «Amabirjin Beltza», Polonia'ko Zaindaria. (NAVARRA HOY- EFE argazkia).

Joan Paulo II'gna., Aita Santua denetik, bigarren aldiz joan da bere Errira, Poloniara. Esan bear aundirik ez, bi elburu izan dituela ibillaldi onek: Elizaren Artzai bezala agertu da Aita Santua, eta Polonia'ko seme zintzoa bezala ere bai. Bere seme kristauen artean, bere aberkideen artean egon nai izan du, Polonia'ko kristauek Jasna Gora'ko Santutegian Czestochowa'ko Ama Birjiña ospatu dutenean.

Aita Santuaren ikustaldi onek, ordea, ez du izan esanai politikorik, zenbait egunkari ta aldizkarietan agertu izan den bezala.

III onen 16'tik 23'ra egin duen ikustaldi ontan, Aita Santuak naiko larri aurkitu du Polonia. Pakearen aldeko deia ta naigabeetan edo sufritzen daudenen aldeko laguntza, izan dira geienbat aldarrikatu dituen asmoak.

Oi denez, Aita Santuak ikaragarriko jende multzoa bereganatzen du, Polonia'n ere alaxe gertatu da. Orrela, Czestochowa'n milloi bat inguru bildu ziren agurra egitera.

«Jainko seme geranez –dio Aita Santuak–, askatasunaren alde jokatu bear dugu. Eraikiaz egin bear dugu askatasuna, ta ez ezeztatuz».

Langilleentzat ere izan zuen oroipen:

«Gizakia ez da lana egiteko gauza lanaren zentzurik bere barnean billatzen ez duenean –dio Aita Santuak–, zentzu ori garbia ez denean, zentzu ori kentzen zaionean».

Leen esan dudan bezala, Aita Santuaren ikustaldi onek ez du politika kutsurik izan, baizik eta Czestochowa'ko Amari bere 600'gn urtean omen bat egin.

Aldizkari ta berri-emalleak ez dute izan gogoan ori, eta erlijiozko ikustaldia politika biurtu dute. Onela zion Aita Santua berak:

«Egiari, maitasunari, askatasunari ta justiziarri egiten zaion omena besterik ez da».

Aita Santuak sortu zezakean arriskua bat besterik ez zen: askatasunaren arriskua ta orrekin batera kristautasuna ez dela elizako sakristian gordetzeko, baizik gizakiaren barnean sartzeko. Auxe izan da Joan Paulo'k Polonia'ri egin zezaiokean serbitzurik aundiena; ta egin dio.

# Eguzkia: alde onak eta txarrak (I)

## MEDIKU ZAARRA

Udaran geranez gero, eguzkiaren alde onak eta txarrak aipatzea egoki izango da noski.

Eguzkia berez ona da, neurrian artzen baldin ba'da; ikusirik bait dago eguzkipean ibiltzen direnak osasuntsuagoak direla, beti itzaletan edo kerizpean ibilli oi direnak baiña.

Landareekin bezalaxe gertatzen da gizakumeen osasunarekin, ere. Landare bat, lore-ontzi batean arkitzen dena, etxe-barruko gela ertsi batean sartuz gero, ta urarik bota gabe, laixter da, lore-landarea zimelduta, erorita, lur-jota. Loreontzia etxe barrutik aterata berriro kanpora ateratuz gero, euritan eta eguzkitan izanez, laixter pixtuko da, bizi-bizi agertzen dela. Osasunarekin orrelako zerbait gertatzen da; orrengatik, nekazariak eta arrantzaleak, eguzki-kolore osasungarriarekin agertzen dira, beti etxe-barruan dabiltzenekin gertatzen ez den bezala.

Ta gauz guziekin bezala, eguzkiarekin berdin gertatzen da; bere neurri egoki batean ez ba'da artzen, kaltegarria dela, alegia.

### EGUZKIAREN ALDE ONAK

Neurriz artuz gero, odola indartzen du, eta odol-tensiyua bera ere, bere onera ekartzen laguntzen du, bere onetik aterata arkitzen baldin ba'da.

Ta ezurrak indartzeko ere eguzkia oso ona dela danok dakiguna da. Aur txiki bat, beti etxe barruan izanez gero, batere kanpora atera gabe, ume orren ezurrak era bat bigunak eta aulak izaten dira; ta bein oñez ibiltzen ikasteko lurrean asten denean, ezurrak aulak dituelako, laister biurtzen da anka-okerra. Ta ori ikusirik, aur ura bera, egunero-egunero, kalera ateratzen asiz gero, bere onera etortzen ikusten da egunetik egunera. Ta gaurko aurrerapenak, asko laguntzen dute ezur-indartze ortan, vitamina D'ren bitartez.

Asma edo arnas-estuarentzat ere mesedegarri da eguzkia; orrengatik, lurralde eguzkitsuetara joan oi dira, gaitz orren mendean dabilznenak.

Soñeko azalean, sortu oi dira, tisiko gaitzak jota daudenean, alako aunditsu bildurgarriak, eta eguzkia laguntzalle onenetakoa izaten da, aunditsu aiek menderatzeko. Ezurretarako aurrerapenak vitamina D sortu zuten bezala, tisiko gaitzentzat ere, badauzkagu gaurko egunean, sendagai berezi-bereziak, esterptomicina, hidrazidak eta abar; baiñan ala ere, eguzkia laguntzalle ona beti.

Eguzkia ona da baita ere, gure soñean alako patxada-giro gozo bat sortzeko; eguzkitan, ibillaldi baten ondoren gure baitan nabaitzen degun bezala.

Ta zer esanik ez baita ere on asko egiten du eguzkiak diabetes edo azukrea odolean geiegi arkitzen denean; eta berdin ona baita ere, kolesterol edo odol-leko koipearen aurrean.

Eguzkiak badu almena, baita ere, artikulazio edo ezur-giltzaduretako aunditsuak bere onera ekartzeko.

Ta beste ekintza onugarriak ere baditu eguzkiak.

### EGUZKIA NOLA KALTEGARRI

Eguzkiaren ekintza, berez ona izanik, kaltegarri zer delata biurtzen da?

Ortaz ongi jabetzeko, aurrez auxe esan bearra dago: alegia, eguzkiak bere baitan, baditula bi erraiñu



berezi-bereziak; biak onuragarri direnak; baiñan neurritz eguzkia artzen ez denean, oso kaltegarri biurtzen direnak. Bi erraiñu oien izenak onako auexek dira: «infrarrojo» erraiñuak eta «ultravioleta» erraiñuak.

Bi erraiñu oien ekintza ongarria da berez, baiñan kaltegarri biurtzen da, neurritz goitik eguzkia artuz gero.

Ta ori nola? Gure soñean eguzkiak kalterik ez egiteko, pixkanaka-pixkanaka artu bear izaten da; ta orrela jokatuz gero, gure azalpean, alako gai berezi bat sortzen da; ta gai berezi onek ematen dio gure soñeko azalari beltz-kolorea; ta illunbeltz onek, galezazten dio eguzkiari kalte egitea; gai berezi onek, gure azalpean, sare extu-extu baten antzera jokatzen bait du; ta orrela lana egiñaz eguzkiaren bi erraiñu oiek, gure azal eta odoletan kalterik egin ez dezaten.

Ona emen, eguzkiak gure soñean egin lezaken kalteak:

1. *Insolacion edo eguzkiaren erasana edo jo-aldia.*
2. *Azal-erretzeak.*
3. *Soñeko azalaren zar-itxura aurretzea.*
4. *Azaleko miñ-biziaren sortzea.*
5. *Zenbait izkutuko gaxo-aldietan egiten ditun kalteak.*

Banan-banan, datorren illean aztertuko ditugu eguzkiaren kalte oiek.



# ZELATARITZA, gure denboretako izurria ASTEKARI

## Frantzia'tik 47 errusitar igorri dituzte zelataritzat

Estadu geinek dauzake beren ordezkariak beste Estaduetan; izen ez-berdiñetako ordezkariak dira: enbajada, kontsoladu, e.a. Eta Estadu batzuek jende asko sartzen dute ordezkariak oietan. Jenderik gutxiena daukana beintzat ez da Errusia: ziur egon ezetz. Agian jenderik geiena daukana izango da toki askotan.

Zelataritza edo ixpitzta zer den eta nolakoa den jakitea, ez da gauza erraza. Beste alor eta gaietan ez-ezik, ontan ere aurrerapen aundiak egin dituzte: batetik gertuera ta eziera oso berezia lortzen dute, eta bestetik tresna oso aurreratuen laguntzaz baliatzen dira.

Gudateetan izan oi ziren ixpi ta zelatariak garai batean. Orain, berriz, alderdi ta une guztietan dabilta. Gauzak zeazkiago esanik, ordea, orain bertan ere etengabeko gudaketa dabil, eta izkillu edo armazkoa bakarrik ez, bestelakoa ere bai.

Ezin ukatu, beraz, URSS eta USA indartsu aundien artean etengabeko borroka ta gudaketa darabizkitela. Eta gudaterik latzenezan bezalaxe zaintzen eta zelatatzen dute biek elkar.

Oso ezaguna da USA edo Amerika'ko Estadu Elkartuetako CIA edo zelatari ixpien erakunde indartsu ta lurbira osoan edatua edo zabaldua.

Bestetik, URSS edo Errusia'ko KGB zelatari ixpien erakunde ere ezaguna da: au ere indartsua ta lur zabal osoan bere lanean ari dena.

Bietan zein ote da beldurgarriagoa? Errusi'ko TASS albistexean albistari izandako Aleksei Antonkin idazleak dionez, albistari edo periodisten arteko eunetatik 70 beintzat ixpi omen dira Errusia'n. Bestetik, KGB erakunde ortan sarturik dabilzanak, 700.000 lagun omen dira.

Ongi gertutuak, gaiñera: ikasketa luze ta sakonak egindako jen-

dea aukeraten omen dute. Eta gero alor bakoitzerako gertuera berezia ematen omen diete. Batez ere, Andropov gidari izan duten bitartean.

USA'ko CIA'k zenbat bazkide dituen jakiten, oso erraza ez ba'da ere, errazagoa da; onen jokabideak ezagutzea ere bai. Zergatik? Ipar-Ameriketa'n bertako izparringiek gauza asko ateratzen dituztelako argitara, kontu zorrotzak eskatuz zenbaitetan. Onen ekintza ta jokabide asko ez ditzakegu ontzat eman, baiña gutxienez ere, ezagutzeko ta zigortzeko bideak badaude USA'n.

Errusia'ko KGB orrek zer egiten duenik, an bertan zearo izkutuko gauza da. Andik kanpora, berriz, igertzen diete nazio batzuetan, baiña beren lana egin ondoren. Zer da oien lana? Tresnagintzako aurrerapenak eta gudaketarako armarik berrienak zer-nola egiten dituzten, izkutuko argibideak lapurtu ta Errusia'ra bidaltzea dute lenengo lana. Bestetik, baita jende artean milla erataria taldeak kezkarazi ta mugitzea.

Luka Brajnovic jaunak idatzi duenez, CIA'k lanik aski ari duela Nicaragua'n eta Erdi-Ameriketa'n, gauza agerikoa da, albistari guztiek esaten bai dute. Baiña aldi berean KGB errusitarrak ere ari du bere lan aundia lurralde oietan beretan, Brajnovic idazleak dionez. Nola? Periodikuetan, irratietan eta ikustirratietan e.a. CIA'ren eta Estadu Elkartuen aurkako milla salaketa egiñez eta giroa aldatuz.

Gauza bat dago argi ta garbi: Paris'ko «Le Monde» eta USA'ko «New York Times» egunkarietan askatasun aundiz egiten dituzte beren agintarien aurkako azterketak. Baiña Errusi'ko «Izvestiya» egunkarian eta «Rude Pravo»'n ez daukate iñolako askatasunik.

Auxe da lurraldeetako giroa. Eta giro ontan, orra or Frantzia'tik 47 errusitar igorri edo bidali egin dituztela ostera Errusia'ra. Zergatik? Zelataritza edo ixpitzta nabarmena egiten ari zirelako. Gauetik goizera bidali dituzte. Aserre ziren errusitarrak eta aserre ziren aien nagusiak. Baiña mundu osoaren aurrean nabarmen gelditu dira.

Jorraill'ean, egun beretsuetan, Ingalaterra'tik beste iru igorri zituzten. Suiza'tik beste bat, Errusia'ko «Novosti» albistexearen ordezkaria ta itxi egin dute onek zerabilkian etxea.

Ez dira oiek bakarrik Ingalaterra'k 105 errusitar bidali zituen ostera beren lurraldera, ixpitzta arrisku-garria egiten ari zirelako. Azkenengo 15 urte auetan badira 253 zelatari Europa'ko Estaduetatik ostera Errusia'ra igorriak.

Ortatik pentsa, zenbat eta zenbat diren ixpien azpi-lanean ari direnak. Errusia'n bertan ere izango dute gogorik aski, ordaiñez, beste lurraldeetakoak kanpora igortzeko. Baiña... ez dute iñor igortzen, noizean bein bakarren bat ezik. Zergatik ote da? Ixpitztan aurkitzen ez dituztelako? Ala, ixpitzta ta azpijanik egiten ez dutelako beste nazioetakoek?



Bilbo Aurrezki Kutxak, bere kultur ekintzaren barruan eta euskal kulturari lagundu nairik IX'gn. AZKUE SARIKETA antolatu du. Iru sari banatuko dira: Eleberria, Olerkia ta Ikerlana.

Eleberri mallean egiten den lan onenarentzako 800.000 peztako saria dago; Olerki maila, berriz, 300.000 peztakoa; ta Ikerlan onenarentzat, 300.000 peztakoa.

Lanak datorren Urrilla'ren 31 baiño leenago bidali bear dira zuzenbide ontara:

Bilbo Aurrezki Kutxa,  
Gran Vía, 23  
BILBO-9

Euskeraz idatziak izango dira aurkezten diren lanak eta iñoliz argitaratu gabeak. Gala, bakoitzak nai duena. Lan bat baiño gelago ere aurkeztu dezake norbaltek, baiña beln aurkeztuz geroz, ez du eskubiderik lan ori erretlatzeko.

# BERTS LARIA

## Dominique Ezponda Txapeldun

Nafarroa'ko Bertsolarien Txapelketa bururatu da eta behin ere ez bezalako ohorearekin. Hemezortzi bertsolari nafartar ari izanak dira, bi alderdiak bat eginik, eta denak elkartasun zoragarrian Nafarroa Amaren altzoan. Gure bertsolaritzaren kondairan aurtengo Xapelgoarekin hamabigarrena dugu. Txapeldunen izen zerrenda ager dezadan:

1936'an: Juan Felix Iriarte	BANKA (Irurita)
1960'an: Andres Narbarte,	GOIZUETA
1961'an: Bautista Madariaga,	ARANAZ
1962'an: Mikel Arotzamena,	LESAKA
1963'an: Mikel Arotzamena,	LESAKA
1964'an: Andres Narbarte,	GOIZUETA
1966'an: Mikel Arotzamena,	LESAKA
1979'an: Jose Mikel Argiñarena,	ERRAZKIN
1980'an: Mixel Xalbador,	UREPEL
1981'an: Jean Pierre Mendiburu,	HELETA
1982'an: Jose Mikel Argiñarena,	ERRAZKIN
1983'an: Dominike Ezponda,	JATSU

Aurtengo Txapelketa hiru saiotan egina da. Iruña'n eta Elizondo'n finalerdiak, eta Donibane Garazi'n Ekaina'ren 12'an Finala. Zortzi bertsolari bereziak izan ziren Azken Saiorako: Mendiburu, Alkat, Mixel Xalbador, Ezponda, Argiñarena bi anaiak, Perurena eta Madariaga. Donibane'ko Vauban aretoa yendez betea eta entzuleen zaletasuna ongi nabari ere esku zarta beroak eginik bertsolarien ohoretan. Dionisio Mujika'ren aginpean zortzi bertsolariak ari izanak dira eta ongi negurtuak ere mota aunitzetako gaiak erabili zituztela.

Lan guziak egin ondoren, Epai-maikoek holaxe erabaki dute auzia:

TXAPELDUN:	DOMINIKE EZPONDA	JATSU
Bigarren:	J. Mikel Argiñarena	ERRAZKIN
Drogaren gaiaz:	Ernest Alkat	IHOLDY
Uztapide zenari:	Fermin Argiñarena	ERRAZKIN

Ezponda Txapeldunak, Ohorezko Txapela eta Garai-lkurra hartu zituen Jean Haristchelar'en eskutik, Euskaltzaindia'ren oparia. Bertsolari guziak ere eskuratu zuten ohorezko oparia.

Epai-maiko jaunak: Jean Haristchelar, Mixel Itzaina, Emile Larre, Jose Urroz, Mikel Bujanda eta Mariano Izeta. Nafarroa'ko Bertsolarien Txapelketa zorientasun osoan bururatu da.

Zorionak, Gora NAFARROA!

ANZANARRI

## DOMINIQUE EZPONDA TXAPELDUNA



Aurtengo Nafarroa'ko Bertsolarien Txapelketan, Dominique Ezponda gelditu zen irabazle, eta orregatik oraingo Txapelduna dugu. Ezponda bertsolaria, 42 urte dituelarik, Jatsu'ko baxenafartarra da; Dominique izenez, ikusten da mugaz beste aldean sortua dela; Ezponda abizenak adierazten digu lerrotik nafarra dela. Zorionak gure Txapeldun berriari!

### GAIA: DROGARI BURUZ

Iholdy'ko Ernest Alkat'en bertsoak «sari berezia» irabazi zuen «drogari buruz» gai jarrian. Gaia denek berdin izan zutena, «kartzeletakoa» edo elkar entzun gabe egiten den saioa: «Lagun bat drogatzan zaitzu; bear duzu konbentzitu utz dezan droga». Eta ona bertso oberena, Alkat'ena:

**Bizi berri batentzat, gaztea  
ibilki baita asmotan;  
baina droga tzar horren biderat  
erortzen ere askotan.  
Gazte maitea, droga horrekin  
ez gelditu erdi-lotan:  
ez dugu drogaren beharrik guk  
Herria salbatzekotan.**

### GAIA: UZTAPIDE'RENA

Sari berezia zuen gai onek ere; eman zuten «puntua» bertsoa osatzeko, eta ona emen nola segitu zion Errazkin'go Jose Fermin Argiñarenak:

**PUNTUA: «Uztapide il zaigu,  
au berri illuna...  
Iñoiz zu ez iltzea  
guk nai genduna.  
Triste bersozalea,  
triste euskalduna;  
gau illun biurtu da  
argi zan eguna.  
Nork beteko ote du  
gizon onen utsuna?»**

# Atano anayak: Juamari

EGI'TAR BI

Anaiak izan ziren biak: Juamari ta Joxemari; biak azkoitiarrak, Izarraitz mendi ederraren magalean dagoen «Atano» deritzan baserriko semeak. Juan Mari, pelotarien aita zen, eta Joxemari, aren anai zelarik, pelotarien osaba.

Bertsolari onak izan ziren, baiña ez era berekoak. Joxemari, patxada geiagokoa, bertsoak ondo borobiltzen zituena. Bere gaiak, geienetan, erlijio-gaiak izaten ziren: peregrinazioak-eta.

Bertsolari baten doairik bikaiñena «eztena» baldin ba'da, Juan Mari, bere anaia baiño bertsolari ohea izan zela esan bearko dugu. Bertso-paperak edatzen aritzea baiño atsegiñago izaten zitzaion bat-batera kantun jardutea Aita Zabala'ren liburutik artu ditugu emen emango dizkizugun Juan Mari'ren ateraldiak, naiz aren bilobei galdera batzuk egin ez bait digute auker ezer berririk kontatu.

\* \* \*


Bein, Lertxundi baserrian txerria il zutela jakinda, ango odolkiak jan naiean, albiste au bidali zion Juan Mari'k Lertxundi'ko etxejoanari, gero Atano l'a izanen zen Luxiano mutikoaren bitartez:

«Bertso bat botako'izut  
Manuel Lertxundi;  
Odolkia emaiozu  
mutil txiki oni;  
orretxeren ustean  
gaur etorri naiz ni;  
aitarentzako ere  
beste bat ipiñi.

Beste bein, seme zarrena berandu xamar etorri omen zitzaion etxera. Juan Mari zuen seme onek ere aitak bezala izena; gero Atano l'a esango zitzaion frontoietan. Ordurako pelotan asia-edo zen, eta zerbaitxo bat jokatzera ere atsegin zitzaiola-ta, ikasbide au eman zion aitak etxera sartu bezain laister:

Juan Mari nere esanak bear dituk  
[artu:  
Kontzejupean sarri ikusten aut estu;  
partidua galdatu, poltsikua ustu!  
Orrela mutillikan ezin aberastu.

Batzuetan pelotan bestian jokuan,  
Jaungoikoak ba'daki ori zer dagan.  
Asko gustatzen zaio gabian kanpuan;  
Etxera etortzen da, «peto» jotakuan.



Atano'tarrak: Juan Mari, aita, (1866-1939), «Atano Luxia» bertsolaria. «...intxaur-aga ematen zuan gizona omen zan: luze-luze ta medarra; ia bi metrokoa...» Aitaren inguruan, bere semeak, Atano pelotari famatuak. (AUSPOA argazkia).

Baiña Juan Mari'ren seme pelotarietako bat ere, Balentin, «Atano V'a», bertsolaria zen aita eta osaba bezala, eta bere anai zarrena aitak nola erabili zuen ikusi bezain laister, atera zen onen alde. Nai zuena esango zuen aitak, baiña Atano l'ak pelotan dotore jokatzen zuen, zer arrai! Batez ere zearka pelota goitik beera ezkerrez jotzen zuenean, ikusgarria zen. Entzun, Atano aitaren aurrean Atano V'ak bere anaia, Atano l'a, nola babestu zuen:

«Hermano», dirizkiat milla amodio;  
Kontseju-pean sarri iluste' aut serio.  
Orren ezker-ziarra nork jasoko dio?  
Orri jokatze'ionak igarriko dio.

\* \* \*

Aipu aundiko bertsoak izan ziren bein batean Juan Mari Atano'k Az-

koiti'ko tabernari bateri bota zizkionak. Lagunak ziren biak, tabernaria ere bertsolaria bait zen. Maiz joaten zen Juan Mari adiskide orren ardandegira.

Gau artan, «Banijoak etxera, andrea zai eukiko diat-eta» esanaz, kaleruntz abiatu zen Juan Mari. Tabernariak ez zeukan orrelako bildurrik, andrea kanpora bidalia bait zuen. Arrek ume-egin bezain laister bidali zituen biak kanpora: aurrera, aitonen baserrira; eta andrea, iñude. Andrearen ordez, neska gazte bat zeukan ardangelan laguntzaille. Bere lasaitasuna agertu naiean onela ekin zion Juan Mari'ri tabernari orrek:

Etxera joan eta gizona bakarrik!  
Emen dagoen onek etzeukak bildurrik.  
Neskatx ederra ortxe etzegok alperrik;  
bart ere artu zidak zapaldu ederrik.

Bat batera, aurpegiz aurpegi,  
erantzun zion Juan Mari'k:

**Gizon au egon bear du burutik nastua:  
andrea ere or dauka urrun bialdua,  
kaballero zar bati dirutan saldua!  
Ark ere billauko dik zeñek zapaldua.**

Zorrotza zela Atano'tar Juan  
Mari «Luxia»ren eztena!

\* \* \*

Jaun Mari, pelotarien aita,  
1939'ko Eguberri egunean il zen,  
74 urterekin. Pelotarien osaba, eta  
aren anaia, Joxemari, bi illabete  
geroago, 80 urte beterik zituela.

# Semea txapeldun

JUAN MARI ATANO

Badakizute gure txikia  
dala ankazko ariña,  
karga pixka bat artuko luke  
enpeñatuko ba'giña.  
Asieran da akabatzen  
dauka jokera berdiña,  
orren gorputza dala diote  
gomiarekin egiña.

Eibar'ko plazan jokatu zuten  
beste askotako moduan,  
an izandako pertsonak ori  
askok daukate goguan.  
Etxabe anaiak bezelakorik  
ez da besterik munduan:  
Mallabi artuta bost tantorekin  
bakarrik utzi zituan.

Enpresa batek egun orretan  
itzegin zion onela:  
«Partidu-faltik ez dek izango  
jokatzen ba'dek orrela;  
ea nuan uste oraindik, baña  
iretzako dek txapela!»  
Ori esanda, gañera propiñ  
ogei duroko txartela.

Jaia pasauta esaten zuten  
an izandako gizonak:  
«Zerekin eñak ditu Atano'k  
besuak eta belaunak,  
tamaña orretan menderatzeko  
pelotaririk onenak?  
Bibote beltzak biarko zitik  
ori autsiko duenak!»

Kaballeruak etortzen zaizko  
etxeko atariraño  
preguntatuaz: «Pelotaria  
nun da irugarren Atano'?»  
Egunian lau kontinuo dauzka  
karta edo telefono;  
estimaziyo au duanikan  
ote da beste bat iño?»

Gaur, gure Aldizkari ontarako,  
Juan Mari'k bere semeari, III Ata-  
no'ri, jarritako bertsoak aukeratu  
ditugu. Bertso oien meriturik aun-  
dienak bi auetxek dira:

Izkera errez, arin, bizkorra, eta  
«puntu» egokiak, era txukunean  
erabilliak.

Atano'tarretan III'ak, Mariano'k,  
1926'ean irabazi zion lenengo aldiz  
ordurarte txapeldun aundia zen  
«Mondragones»eri; Donosti'n. Ta  
Eibar'en bigarren aldiz, zazpi egun  
geroago. «Mondragones»en adis-  
kideak, ordea, ez ziren lasai gel-

ditu. Bi partidu aiek jokatzera  
Txapeldun zaarra osasunaz on-  
giegi ez zebillela-ta, irugarren par-  
tidu bat eskatzen zuten. Bilbo'n jo-  
katu zen partidu ori, eta Mariano'k  
irabazi zuen au ere: 22-9.

«Ni ere an nintzan –esan omen  
zion Aita Zabalar'i azkoitiar batek–,  
eta oraindik ere gogoan daukat  
Atano'ren aita nola ikusi nuan  
brusa luze-luze batekin, lurrezko  
pipa ezpañetan, eta urritz-makilla  
eskuetan». Partidu ura irabazi on-  
dorean jarri zizkion bertso auker-  
aitak semeari:

Ba-da-ki-zu- te gu-re txi-ki- a da-la an-kaz-ko-a-ri-ña; kar-ga pi-  
ka bat ar-tu-ko lu- ke a-le-gin- du-ko ba-gi-ña: a-si-e-  
ran da a-ka-ba-tzi- andau-ka jo-ke-ra ber-di-ña, ber-di-ña, o-rren gor-  
pu- tzada-la di-o - te go-mi-a-re-kiñ e-gi- ña.

Nere laguna poztuko zera  
bertso oriek aituta;  
Euskalerrian ez da besterik  
pelotariei beituata;  
Atano Txiki bezelakorik  
munduan ez da sortu-ta,  
monumentu bat jaso beaiogu,  
danak merezi ditu-ta.

Monumentu au jasokoioгу  
bere irudiarekin:  
Alkandora ta praka txuriak,  
gerrikua txapelakin;  
liburu aundi bat eskribittuta,  
bere azaña danakin,  
gero gaztiak jakin dezaten  
ispillu eder onekin.

Liburu ortan jarriko dira  
partidurikan onenak,  
Ulazia'kin Bilbo'n ta Eibar'en  
jokaturik dituanak;  
bera bakarrik ez zan tristetu  
emen'e baziran penak;  
ez dakit ori nola leikean  
erria maite duenak.

Donosti'n ere ikusi degu  
orren abillidadia,  
lanikan asko izango degu  
ikusten partidu obia;  
sake gogorra, airez urrengo,  
an zan istillu gorria,  
askok zioten Atano zala  
pelotarien erregia.

Ez al dezute beñere aitu  
«Mondragoitari»'en deiarik:  
mundu onetan jaiotakoak  
ez ziola emango urrik?  
Amar urtetan orrek euki du  
jende guzia bildurrik;  
jokatu dio eta atera du  
amabirekin bakarrik.

Majiña bati gustatu zaio  
Mariano'ren sarrera,  
gorputza txuri txuri jantzita  
erten du danen aurrera;  
oiek esanaz etorri giñan  
guztiok erri-aldera,  
emen ditugu mondragoitarren  
dirua eta bandera!

Bilbo'n ere jokatua zuan  
partidu kuriosua;  
erretratuen aldamenian  
etorri zan abisua,  
(ernegatutzen egon dedilla  
zufritu ezin dun gaixua)  
jartzen zioten Atano zala  
pelotarien maisua.

Manorik mano aprobatzeko  
beti eukitzen du poza;  
Mariano'ri tantoak sartzen.  
plazan ez dago errezta.  
Danak sallean bentzitu dittu:  
azkena Mondragonesa,  
mundu onetan bat ez dago orain  
orri jokatzeke gauza.

Manuel Olaizola, «UZTAPIDE» bertsolaria il da. 1909'ko Loraila-ren 10'an jaio zen Endoia'ko «Uztapide» baserrian. Bere azken arnasa, bestalde, 1983'go Ekainilla-ren 8'an eman zuen.

Ikaragarrizko jendetza Oiarzun'go San Esteban elizan bildu zena, berari azken agurra egitera.

Erriz erri ta plazarik plaza bertsotan jarduna dugu Uztapide bertsolaria. Bere adiskide eta bertsokide «Basarri»'rekin.

Bertsolari txapelketetan parte artu oi zuen eta baita aldi batzutan Txapela irabazi ere.

Euskaldun, bertsolari eta bertso-zale guztientzat bere oroigarria gelditzen zaigu. Gizon apala, bizitzak asko erakutsi ziona ta Euskera ta Euskalerrria'ren alde bere bizitza jarri zuena.

Bere gaxotasunaren berri eman ziotenean, lasaitasunez artu zuen. Bere itzetan esanik:

«emendik aurrera dago bizi motza; gutxiena ustian dator eriotza».



# UZTAPIDE BERTSOLARIA JOAN ZAIGU

## ERIO TZA

UZTAPIDE

Orain irurogei ta sei urte jaiotza izan nuela, ez naiz esateko lotsa. Geroztik probatua berua ta otza. Emendikan aurrera dago bizi motza; gutxiena ustian dator eriotza.

Mundu onetan ia denborak betiak. Eta pena ematen bestera juatiak: projimuari egin dizkagun kaltiak, lotsa ematen digu gero esatiak; ia ixten dizkuen zeruko atiak.

Anima garbi degu guk gere ustian; etsaiak zirikatzen baten da bestian; eriotza urrian dala ikustian, jaiian bezela ori letorke astian; zai egon bear gure bizitza guztian.

Gazte-sasoian izan giñan indarrean; orduko kontuak gaur aztu bearrean. Eriotzako ordua emen da urrean, pekatuan bizitzen ba'gera lurrean, zer esan bear degu Jaunaren aurrean?

Guk izanagatikan mingañoak legunak, ezagutzen gaituzte auzoko lagunak. Aiek galtzeko griña eduki degunak, bearbada batzutan galdu ditugunak; danak goguan artu bear ditu Jaunak.

Emen pasatzen dira milla gertakari, mundu ontako gizon danak pekatari. Iñorik ez du egin nai oien merkatari, ezer supritu ezin batak besteari; gauzik itxusiena izango da ori.



Manuel Olaizola, «Uztapide» bertsolaria. (AUSPOA argazkia).

Burutikan gerade ziaro ariñak, da uste ez degula pekatu egiñak, eta ondorenia datozkigu miñak. Alare emen daude txarrerako griñak, Jaunak ondorenia baditu ordaiñak.

Mundu ontan gauza bat dago itxusia: iñolaz ere alkar ezin ikusia; nola arkitzen dan bat bajatzen asia, eriotza gañean ain gauza gazia. Ortantxe bukatzen da gizonen bizia.

Eriotzako ordu ori ain da latza, bein or erortzen dana ezin leike altza. Etortzen zaionian ordu bat garratza: eguna bezela da arentzat arratsa; ez ditu bereziko pobre ta aberatsa.

Gizona egon arren sasoi baten gordin eriotza etortzian izaten da berdin. Alperrik esatia: «Emendik aldegin!» Ark pentsatutakua azkar asko egin; iñor azitarako gelditu ez dedin.

Gizona tristetzen da indarrak aitzian; andik aurrera beti bat zorigaitzian. Bildurrak arratsian, da berdin goizian. Jaungoikuari eten gabe otoitizian; laguntzeko bizitzan da eriotzian.

## Txirtxirra

Txir, txir, txir... Txirtxilla ezen (ostenduta belardietan) etengabe, ekiñean, eguzki ta illargitan kantari ari danean dei ta dei, bere maitearen urbil edo urrunean, udaldiko egunetan...

Txirtxillak badu, txir-txirka aritzeko, etengabe, zerbaiten gogo ta, uste; badu, maitezko sena, zerbaiten itxaropena; badu «nika» edo «ika» biziari so, aldarrika, abestutzeko almena.

Txirtxillak, txir, txir, txir, badu zerbaiten gose, egarri; badu zerbaiten berri, maitasunaren ikutu, eguzki ta, illargitan, udako alor, landetan ari danean kantari badu bai, zerbait pozgarri.

MUNIAITEGI'TAR SABIN

## NOLA EBILTAN DA ODEI-ARTEAN?

Nola ebiltan da odei artean? AVIVA DORON

Baratx,  
emaro-emaro eta aizinaz;  
odeiak ikutan dra beilaki.


Odei atsartan eta amets  
goartan da,  
begizaturuk.

Odei artean ebiltan da  
argi edanik.



(JEL'ek uskaratu)

# GAUZA BITXIAK



## ITXURAK BAI, BAIÑA BERAK OTE DIRA?

Inglaterra'ko senar-emazte ezagunak, Gales'ko printzeak ote dira? Itxura ta antz guztiak dituzte. Baiña ez dira egiazkoak, antzekoak bakarrik. Antza ta itxura ori ez dituzte alperrik galtzen. Izan ere, antza dutelako, alde askotatik dei egiten diete. Diru-iturri ederra aurkitu dute bien artean.

## MUNDU OSOA ZURE ESKU-MUTURREAN

Esku-muturreko ondulari bat ageri da argazkian. Baiña japonarrek egiña da: ez da nola-naikoa. Zer asmatuko ote digute japonar txiki oiek? Neskatzia orren ordularian, ikustirratia daukazu, VHF ta UHF ikusteko eran. Ori bai, zuri-bel-tzean, baiña irratiak ere entzun daitezke beratatik.



## GEZURREZKOA DA IRUDI IKUSIA

Ez, es da ikusten duzuna sekulan gertatu: zaldi batek Ingalaterra'ko Erregiña'ri loretxoak jatea... Alemania'ko margolari parragarri batek egin du pintura eder ori. Eta inglesak ez dira asarre; ontzat artu du Erregiñak berak. Bestela...

# ATZERRIRA JOAN ZIREN ANDEREÑOEI OMENALDIA

Bizkai'ko Euba'n bildu ziren 1936'go gudatean atzerrira atera bear izan zuten umetxoekin izandako 64 andereño. Mereziz zuten omena, noski.

Iñork gutxi daki andereño oien berri; ñork gutxi daki zenbat sufritu bear izan zuten euskal umetxo aiek ongi zaintzen.

Zaar eta gazte Euba'ko «Lauaxeta» ikastolan bildu ziren eta bertan izan ziren Iñigo Agirre, Pedro Mari Etxenike, Jabier Caño, Jon Castañares eta Jesus Mari Leizaola, Euzkadi'ko Lendakari izandakoa.

Onek, ain zuzen, itzaldi labur, baiña maitasunez egindako itzaldian, egoki gogoratu zituen andereño auen gorabeera guztiak.

Aazturik egon baldin ba'gera ere andereño auekin, emendik aurrera izango dute beren zaar-saria, Euskal Jaurlaritzak agindu dienez.

Andereño aueri esker daukagu oraindik ere jende auskalduna ta kristautasunean tinko irauten duena.



Azkeneko gudatean atzerrian andereño izan zirenei, Leizaola Jaunak ezarri zien gorazarrezko domiña berezia. Biotz gozoz eskertu zitoten andereñoek Euzkadi'ko Lendakari izanari, beragandik artu zuten omena.

## Peru Txiki'ren ateraldiak

«Peru Txiki», ainbeste lekutan ezaguna den artista, bere izenez Tomas Asio Arbonies, Zaurutz'en jaio; ala ere, berez naparra du bere jatorria, aita ta ama naparrak zirelarik.

Amazazpi urtekin Iruña'ra itzuli, emen bizitzera bai ta lan egitera ere. Ez zaio bizia erreza izan, eta lan guztietan eldu bear izan du bere famili luzea aurrera ateratzeko. Baiña, ez zaio umore onik falta izan, bai bere erstuetan, eta bai besteentzat irripar gozoa eramateko. Leku askotan, Erroma'n ere, baiña batez ere Naparroa'n, aurkeztu ditu bere ekiñaldi ikusgarriak.

Noizean bein, emen agertuko dira berak bidailko dizkigun ateraldi famatuak; ez zaigu gaizki etorriko irri-par arin bat. Ongi etorri, eta eskerrik asko, Peru Txiki!



Joshepa nere andreak esan dit:

–Bai al da ordua etxera etortzeko?

–Amabiak amar gutxi bakarrik dira, esan diot.

Orduan Joshepa'k:

–Ez al dezu Elizako erlojuan ordu biak jo dutela?

–Bai, ba! Eta amabi amar gutxi zenbat dira?

Nere Joshepa ixilik.

–Ez al dira bi, edo?, esan bear izan diot. Eta oraindik:

–Ikastolara joan bearko dezu, kontatzen ikastera...

Umeak, mozkorrek eta eroak esaten dituzte egiak. Orregatik, gure Iñaki bost urtekoa bialdu du amak ogei pezta aragia erostera.

Gure umeak arakiñari:

–Amak esan dit ogei pezta aragia emateko txakur txikiarentzat; baña atzo baño obea, aitari miña egin zion-eta.

Beste batean, gure Iñaki lotsagabeak amari:

–Ama, ama!

–Zer dezu?, amak esan zion.

–Eskaratzean dago Begoña nobiyoarekin, eta iru musu eman dizkio.

Orduan amak:

–Ez egin kasorik, ume. Datorren urtean ezkondu bear dute oriek.

Aurrak ordun:

–Orrela aita nekamearekin ere bai!



## Arriskugarria!



*Ori bagenekien aspalditik; bañan, berriz gaurkotu digute egi aundi ori, sendalari ospetsuak bildu berriak bait ditugu Viena uri aundian.*

*Ta auxe adierazi dute, entzun ta erantzun nai duten guzientzat: zenbat eta geiago erre, orduan eta arrixku aundiagoa biriketetan minbizia edo kantzerra sortzeko. Ta geiago oraindik: zenbat eta gazteago asi erretzen, orduan eta arrixku geiago gaitz bildurgarri ori, erretzailleen biriketetan sortzeko.*

*Egi aundi oietaz benetan jabetuz, bear diren neurriak artuko ba'lituzteke, gaurko ainbeste ta ainbeste neska-mutillak...; bañan, askori esan edo ez esan berdin-berdin dela ikusten dugu; pareta zarrari esatea bezalatxo...*



# • ERRIZ - ERRI •

## Baztan

«MARTXO LORE, DEUSEZ LORE.  
APIRIL LORE, BATRE BAÑO HOBE.  
MAIATZ LORE, URRE LORE».

«Kukuak kantatzen du Maiatzian kuku kuku». Euskal kanta batek hola dio eta holaxe gure alderdiko kantari xaharrek Maiatzean sartu orduko eta kukuaren kanta ozena entzunik, laster hasiko zaizkigu abesti hori errepikatzen. Erranairu batek ere kukua aipatzen du eta hola dio: «Kukuak Erramu egunean kuku, San Pedro egunean muku». Sasoin huntan gure Baztan aldean atsegin haundiarekin entzuten dugu kukuaren deia eta erran dezadan huntaz ere bada-gola zerbait erran beharra. Udaberrian lehenbiziko aldia entzuten delarik kukuaren kanta, sakelean sosa balin ba'duzu, orduan urte guzian etzaizu sosik faltako, bainan sakelean sosik ez ba'da, orduan urte guziak sosik gabe. Zorionezko kukua etzaitela ixildu gure Euskal Herri'ko oihanetan.

Xalbador zenak xori parearentzat erran zuena gogoan daukat eta aipa dezadan:

«Jainkoak berak erakatsirik  
dakiten soinu gozoan,  
ohantze berri baten egiten  
elgarren amodioan».

Maiatza'ri buruz baditugu esaera zahar gehiago ere eta urtero entzuten ditugunak:

«Maiatza fardo, erearoa klaro,  
orduen bilduko da ogie ta artoa franko».

Eguraldi ederrakin zein zoragarrria den Maiatza, naturalezaren berpiztea, gaztetsasunaren adierazgarri. «Maiatz lore urre lore».

Irurite eta Urdazubi'ko herriek ospatzen dute Salbatoreak, gure eskualdean izaten diren lehenbizikoak, hortaz badute arrakasta, yende aunitz biltzen baita bi herri hoietan denak dibersioaren bila.

Gure bizi moldeak eta ohiturak ere aldakuntza haundia egin dute bainan nekazariek beti naturalezaren menpe, Maiatza dute erizioak egiteko ilabeterik hoberena. Maiatza urtearen giltza.

Lehenagoko denboretan Maiatza'ko lehenbiziko egunetan egiten ziren kisulabeak.

Neguan biltzen zen egurra, ote, abarrak eta sugerri guziak kisulabearen ondora eta dena ongi pila-tuz. Gero kisu harriz kisulabea bete eta behar ziren antolaketa guziak, den dena prest egon zedin. Maiatzaren hasmentan etxeko nagusiak su ematen zion kisulabeari. Zere-monia interesgarria. Bertze egun batez kisulabeari buruz xehetasun gehiago emanen ditut.

MARIANO IZETA

## Filipinak

### BEROARENA

Ilo-Ilo ontan, irian, zumardi aundirik ez degu. Txoriek ere itzala nai ba'dute, sapaietara-edo ies-egiten digute. Elizetan ateak geienean zabalik, eta etxolarrak beintzat, oso lotsa gutxiz, gu otoitzean geran arren, antxe izaten ditugu. Beti isilik ibiliko ba'lira... bai ederki!

Beroak, atzo, Maiatza'ren erdian, geienok beartu ginduzen. Arratsalde apalean batzarra genduela, eta oñez nindoan. Baso izenez ere ezin deitu nezaioke, eta zuaitz-ondo batzuk ia pillan bezela. Bertantxe, Iturriaga'k idatzi zigun ipuia gogoratu neri:

bitartean, txitxarra zijoan pasatzen  
uda guzti-guztia sastian kantatzen...

Ura eraso! Nolanai ere bat baño geiago ziran atertu nai ez zutela. Ardalla bizian ari zirala belarriak gortuko bear zitzaizkadala iduritzen zitzaidan. Alako iñarrosketarik; ez isiltzen!

Pilipin auetan txingurria nagusi degula esango nuke. Egunero ez; bañoan, aldizka, izugarrizki pizti-emanan izaten degu. Elizan bertan, opa-mai-arriaren gañean izaten degu. Margo guztietakoak, gañera: beltzak eta gorriak, azigoak eta xee-xeak ere bai; txingurri zuria zura-jale degu.

Ez dakit txingurriak txitxarrari orain onako au esango ote lioken:

Aspalditik zekiat nik, gurasoetatik,  
ezin biziko naizela egin bage lanik.

Eta gero bexte au:

Txitxarra gelditu zan argala, umilla,  
este zimurtuakin eta erdi illa.

Euskal Herri'tik Pilipin'etara tarte aundia dago, eta an gertatzen diran asko, emen ezin ikusi. Urte guztian ostoa eze degu ontan; ba-

soetan eta zelaietan zer-yana aukeran izango, bai txitxarrak bai txingurriak. Izketan asiko ba'lirake, txitxarrak txingurriari betiko berrituko lioke? Ez beintzat au:

Or ibiliko al aiz beti arrastaka,  
ezin gari-ale bat karriaturika?

Emen, ari-ale orde, ugolo-alea leramake kabira; bañoan ori base-rrietan gertatuko litzake. Emen, irian, labe-zomorro ilak eta ola-koak txingurriaren bazka. Izan ere, labe-zomorroa bai erruz emen! Uste gabe, illunpean, ankazpean lertzen ditugunak, txingurrien yanari. Ondoren, berriz, berez iltzen diran xomorroak, goragoko txo-koan edo, izango eta txingurriak araño zerrenda luzean ibiliko. Emengoek txingurri zerrendak suz ezabatzen dituzte. Sua eta ura txingurrien etsairik aundienak.

Atarian bertan txitxarraren otsiak ez... eta delako zumarditxo ortakoa, atzo illuntzean, gogaikarri gertatu zitzaidan.

ETXEBERRI S.J.

## Basaburua

### BASABURU'KO EGUNA

Basaburu Andia dugu Nafarroa'ko arantetik ederrenetako bat, mendi ta basoz ornitutakoa.

Orain lau urte gazteek eraturako «Herri bat, Hizkuntz bat» festari jarraipena eman diote; itxaropenez betea, orain orlegiz jantzitako aranaren gisakoa.

Illabete batez eratu zituzten zenbait kultur ekintza. Bukaera, berriz, festa onekin eman zitzaion:

Igoa'n aizkora-apustu berexia. Erdozia, esku batez bi onbor autsi zituen; biak, 54'koak; gero, beste zortzi, auek ere 54'koak, baiñan etzanik.

Gero, pilota-partiduak.


Iruetan, bazkaria Gartzaron'go frontoian; bitartean, Zaldibia'ko trikitalariak ari ziren arana, Eguna ta euskara goralduz. Arratsaldean, bertsolariak eta dantzak.

Ala bukatu zen «Basaburu'ko Eguna», baiña anaitasun jaialdi orrek merezi du jarraipena, batez ere, kultur ekintzetan. Bear ba'da bertze lekutan baiño geiago egiten den; or daude Eskolako aurtxoek bidali dizkiguten idazti politik aldizkari ontan agertzeko, eta urrengoan agertuko dira.

S. ERBITI

# ZERIO'TAR PAUSTIN JAUN AGURGARRIA

GARDE'TAR M.



Apez jator ta berezi onekin zorretan geunden Aldizkari ontan. Irakurle gogotsua genuen, eta euskeraz egiten zituen idaz-lantxoak, bein baiño geiagotan igorri zizkigun. Bera il zenean, joan den urteko Maiatze'an, isilpean zegoen Aldizkaria.

Orduan, adiskide zintzoari ta maisu jakintsuari ez genion egin bearrezko omenaldia. Gizon betea, apez saiatua ta napar jatorra izan zen. Eta irutasun ortan -gizona, naparra ta apeza bezala- eredu bikaiña izan zaigu D. Faustino zena.

Bargota'n jaio zen 1913'ko Abenduaren 15'ean. Bargota, Kastilla'ri begira dauden napar bazterretan dago; ala ere, gure gizona zin-ziñezko euskaldun jatorra izan zen.

Aurtzarotik agertu zen apezetarako gogotsu, otoitz-zaletasun bizia ekarri bai zuen. Artu-eman bereziak zituen Faustino'k, aurreraz, bai umeekin, bai abereekin eta baita aingeruekin ere, etxekoek agertu digutenez. Asis'ko Franzisko'aren «Loretxoak» liburu xumearen antzekoa idatzi genezake D. Faustino naparraren bizitzatik.

Iruña'ko Apezgaitegia sartu zen ikasketak egitera. Iruña'ko Eliz-barrutiari -onen edozein lekutan- serbitzu egiteko prest egon bear duela apezak, ongi zekien Zerio'tar apezgaiak, baita Naparroa'ren euskal nortasunari begirunea zor zaiola ere. Orrengatik, ausartu zen au eskatzera: «Iruña'ko apezgaiak euskeraz ongi ikasteko bideak izan bear zituela».

Zer gertatu zen? Bota izan egin zuten Iruña'ko Seminarioagatik? Itota, joan bear? Norbaitek jakin bear du, nik uste.

Logroño'n jarraiki zituen apez-ikasketak; antxe apeztu 1936'gnaren Urri-lle'an, eta an bete izan zuen apez-bizitza guziaz.

Beti argi ta aurrerari izan zen D. Faustino; berarentzat ez zen lainoetako gizonik; aragizkoa, leku jakiñetakoa, bere giro bereziz inguratua zen gizakume bakoitza. Orrelakoak maite zituen eta begirunez artzen zituen, bakoitzaren kezka arduraturik. Zuzengabekeriek sutan jartzen zioten odola; bere lurraren ain maitale sutsu izan zen, arras Jainkozale zelako.

Lenengo apez-lana, Errioxa'ko Maturte, Badaran eta Angiriano'n zen; gogorra, bai 1936'gn. urtea, ilketa ugariz zaurituriko lurraldean apez izaten asteko! Ta nolakoa izan zen D. Faustino! Ez da nolana aztuko Errioxa ortan napar apez gaztearen izena!

Orduko «loretxo» bat; neskatxa itsuarena. Bazen neskatxa bat itsua,

gaztea ta Mezetara joaten ez zena, otoitz eta Elizako gauzarik nai ez zuena. Ura zen apezaren kezka! D. Faustino'k erakutsi zion bioliña jotzen eta, aldi berean, liburuak irakurtzen itsuendako Braille xistima bereziaz. Orrela itzuli zitzaion neskatxa itsuari bizitzeko poztasuna.

«D. Faustino, aitortu nai dut». Eta aurrerakoan kristau siñestun eta elizkoi jatorra izan zen.

Logroño'ko Apezgaitegia eraman zuten D. Faustino 1940'gn. urtean, irakaste ta ezitzaille izaiteko; ta ia bere azkena arte izan ere! Izkuntzak ikasteko erraztasun aundia zuenez, asko zekizkien. Gerketa ta latiña erakusten zituen; eta Filosofia ere bai.

Izkuntza artetik, euskera zuen maiteena.

«Euskera da -esaten zuen berak- *barnean sakonera eldu nadin biderik laburrena ta argiena; eta gure aurrekoen izaera ezagutzeko ere bai*».

Bazekien euskeraz mintzatzen eta idazten; eta, batez ere, bazekien euskeraz maitatzen eta besteen baitan euskerari maitasuna pizten.

Anitz maite izan zuten D. Faustino Logroño'n. Apezpikuek «kanonigo» egin nai izan zuten; gure gizonaren apaltasunak, «ezetz!».

Atsekabeak ere izan zituen, ez gutxi. Beti aurrera egiten zuen, batetik egia-ekin, eta bestetik apaltasunez. Logroño'ko «Gobierno Civil» delakoan asarre eraso zioten, bere abizena «Z» izkiaz baliaturik, beti Zerio idazten zuelako. Beraren erantzuna:

«Onelaxe dago antziñatik idatzita; baita arrian ere».

Naparroa biotzaren barnean zeramakien beti. Ainbeste naparrek beren euskaltasuna galdu dutelako eta orrela ainbeste naparrek beren nortasuna galdu dutelako, samindurik bizi izan zen. «Naparroa'ren Lege Zaarra» edo «Fueroak» liburuxkaren bat idatzi nairik ibilli zen azken illabeteetan. «Preliminares del Convenio de Vergara» li-

buruaren bearrean zeuden, eta Naparroa'n ez aurkiturik, dena utzi. Naparroa'ri buruzko lan batzuk ere argitaratu zituen «Euzkadi» Aldizkarian, izenordez, jakaiña.

Azken eritasunaren ordu luzeetan, olerkitxoak idazten zituen, euskeraz, Euskalerra'ko zazpi txokoetako Ama Birjiñak gai artuta.

«Ez uste, esaten zuen, *anitz onak direnik; zuzenketa ugari bear dituzte; baliorik aundiena, sartu dudan maitasuna*». Beti D. Faustino'ren apaltasuna! Baiñan, aldamenen daukazu aren «Orreaga'n» olerkitxoak, irakurle, zure iritzia adierazteko euskaldun berri baten kasu berezi ontan.

Eskerrak zuri, D. Faustino! Eskerrak, orain 25 urte direlarik Uxanabilla'n (Genevilla) apez nintzenez, napar liburu bitxi arengatik.

Eskerrak, Logroño'n (geroago Ilunberri'n) zurekin izan nituen izketaldi aientatik.

Eskerrak, 1960-63'gn. urtetan, «Clero Vasco» taldean zure izena sartu zenuelako, Agiri arriskugarriak bildurrik gabe, izenpetu naiez, izenpetuz.

Eskerrak eta eskerrak zure maisutasunagatik, zure adiskidetasunagatik. Izan zaitetz zoriotsu betiko Aberrian!

## ORREAGA'N

**Naparroa'ko bazter batean, lur santu baten erdian, agertu zan bein Ama Birjiña, Orreaga'ko tokian.**

**Itxaropenez bete-beterik, -urtero, udaraldian- andik-emendik etortzen dira jendeak erromerian.**


**«Orreaga'ko Ama samurra, entzun otoitza nigandik, gure biotzen sendagarria izan bait zera aspalditik».**

**«Gorrito ta apen oso-osoan ken erabat geurengandik, guk elkar maite izan dezagun bein-da-betiko gaurdanik».**

**Etsiak eta azpi-sugeak zatitu dute Erri zarra, naiz bi aldetan napar guztiek izan biotz bat-bakarra.**

**«Orreaga'ko Ama, izan zaitte, gure lokarri azkarra, gero ta geigo indartu dedin anai-arteko sugarra».**

† ZERIO'TAR PAUSTIN



# KIROLAK

## EUSKAL ESTROPADAK



**Estropadak:** Euskalerrri'ko kirol-jaietan, atseginenetako eta ederrenetako bat. Estropadek arraunlarien artean alkartasun bizia eskatzen dute: Euskalerrri'an gaur ain bear-bearrekoa dugun alkartasuna. (NAVARRA HOY-EFE argazkia).

Udara. Garai egokia ur-kirolak egiteko. Ta itxaso ta ibai zale diranak ondo aprobetxatzen dutela esan bear.

Estropadak. Estropadak dira ain zuzen euskal sustraia agertzen dutenak. Itxas-ertzeko errietan estropada ugari jokatu oi dira. Sariketa asko, leiaketa ugari: Ikurriña saria, Estaduko txapelketa, Kantauria'ko saria, Gipuzkoa ta Bizkai'ko txapelketak eta abar.

Udaldia ondo igarotzeko aukera bikaiña. Garai ontan ez bai dago ostikoketa txapelketarik, ez beste apustu aundirik.

Arraunlariak izerdi ta pats, bai orixe! Baiña gure itxasoko ur freskoak alakoxe giro berezi bat ematen dio kirol mota oni; batez ere ikusleek giro berezia sortzen dute.

Estropadak ba-dituzte erri bereziak: Motriku, Zumaia, Orio, Donostia, Sestao. Mundaka, Ondarrabia, baita Pedreña ta Santander ere.

Itxasoko jendea, arrantzaleak, ura beti ezagutu ta bizi dutenak...

Legorreko erri ta uritarrek ere ezagutzen eta aitortzen dute kirol mota onen gogortasuna, zailtasuna, apaintasuna, edertasuna...

Zenbaiti, nola ez, jokorako griña ta gogoa ere sortzen zaio ta orretxek askotan zikintzen du kirol guztia.

Kirol guztiek dute oiñarri bat: lana. Aizkolariak, segalariak, idi demak... eguneroko eginkizuna besterik ez dute egiten; eginkizun orri, ordea, alakoxe aunditasun ta espiritu berri bat ematen. Ez da eguneroko bearra, baizik eta nork geiago edo nork leenago egin ametsa.

Beste kiroletan (palankariak, korrikalariak, arraunlariak...) beste berezitasun bat sartzen dute: neurkera edo ritmoa.

Ez da naikoa arraunlari batek egin dezaken indarketa; talde osoak batera indarra egiten ikasi bear da. «Patroia»-ren eginkizuna, beraz, guztiz garrantzitsua da ta onek egiten duana ikasgai ederra gertatzen. Onen keñuak eta aupadak bearrezkoak gertatzen dira neurkera ori zuzen eta egokiro eramateko.

Kolpe oker bat edo aulaldi bat naikoa da egin dan guztia ezerezean gelditzeko, saririk gabe gelditzeko.

Gogorra da Kantauri itxasoa; gure itxas-gizonen egunero berarekin borrokan diardute eguneroko ogia irabazi aal izateko.

Gure gizonen, ordea, euren gizatasuna erakutsi dute eguneroko bear ori apaintasun eta edertasun biurtuz. Egia da ortarako asko saiatu bearra dagola; ez bearbizinez, gogoz baizik. Inguruko gauzak eta indarrak menderatzea ta barrengo espiritua agertzeak sortzen duan edertasuna da ori guztia.

Joko garbiak, noski, giza-izateari alakoxe askatasun eder eta polita ematen dio eguneroko zailtasunari.

Eskaintzen diguten politasun orregatik gure txaloak merezi dituzte, naiz eta beti ZORIONAK irabazlearentzat izan.

JOSEMARI

## ERRUSIAR TXIRRINDULARIAK NAPARROA'N

Errusia'ko txirrindulari taldea izan da talderik arrigarriena ospatu den Nafarroa'ko Txirrindulari itzulian.

Errusiarrak, Colombia'ko «Carrera de la Paz» sarian ibilli ondoren, etorri ziren Nafarroa'ra; eta esan bear berak izan zirela saririk geienak irabazi zituztenak. Noski, leiaketa auek Frantzi'rako gertuera bat bezala izan zaizkie.

Lenengo egunean, Leyre-Viana egiñiko saioan, erraz ikusi zen errusiarrak zerbait egitera etorri zirela. Euskaldun txirrindulariek izan dira, ordea, borroka egin eta naiko estu artu dituztenak.

Baiña XXII'gn. Nafarroa'ko Itzulía errusiarrentzat izan da. Tchugeda, Evgueny ta Topodirstser izan dira alakoxe ikusmira sortu dutenak, eta orrela Nafarroa'ko Txirrindulari Federazioari goraipamena eman bere Urrezko Eztaietan.

**Onela azken zerrenda:**

- 1.-Tchugeda (URSS) 25-27-53.
- 2.-Cabestany (ORBEA) 57 segundotara.
- 3.-Topodiretaev (URSS) 2 m. ta 26 segundotara.
- 4.-Salva (CAJAMADRID) 10 m. ta 16 segundotara.
- 5.-Evgemy (URSS) 11 m. ta 32 segundotara.

**Taldeen zerrenda:**

- 1.-URSS
- 2.-REYNOLDS
- 3.-CAJAMADRID
- 4.-GURELESA
- 5.-BRASILEÑA



## SUMARIO

1: LAN «ARLOTETIK» IGES. Rehuendo los oficios «bajos». Hambre de Universidad; sicosis de títulos.

2-3-4: EUSKALERRI'KO LEIOA. Noticias, acuerdos, comentarios. D. C. Garaikoetxea por América; el Papa en su tierra polaca.

5: EGUZKIAREN ALDE ONAK ETA TXARRAK. Beneficios y perjuicios de los baños de sol. MEDIKU ZAARRA.

6: SALKINDARITZA, GURE DENBORETAKO IZURRIA. Espionaje, peste de nuestro tiempo. ASTEKARI.

IX'GARREN AZKUE SARIKETA. Incentivos de la Caja de Ahorros de Bilbao en favor de la Cultura vasca.

7-8-9-10: BERTSOLARIA. NAFA-RROA'KO TXAPELKETA. Campeonato navarro, ANTZANARRI.

ATANO ANAYAK: Juamari. Escribe EGI'TAR sobre el bertsolari Atano, padre de los Atano pelotaris.

UZTAPIDE BERTSOLARIA JOAN ZAIGU. El fallecimiento de Uztapide; versos suyos, encarando la muerte. Aviva Doron, poetisa hebrea: una traducción de JEL al roncalés. «El grillo», S. MUNIATEGI.

11: GAUZA BITXIAK. Algo curioso para hoy: Judy Eagleton y Peter Hugo, los «dobles» de los Príncipes de Gales; el caballo y las flores de su Graciosa Majestad; y esa técnica japonesa que tiene el mundo en un puño.

12: ATZERRIKO ANDEREÑOEI OME-NALDIA. Homenaje —y reconocimiento de una pensión— a las andereños que fueron al destierro y educaron a los niños vascos del exilio.

PERU TXIKI'REN ATERALDIAK. Salidas de Peru Txiki: una colaboración del conocido humorista.

13: ERRIZ-ERRI. Por los pueblos: Baztán, Filipinas, Basaburua, firmando IZETA, Patxi ETXEBERRIA S. J. y F. ERBITI.

14: ZERIO'TAR PAUSTIN JAUN AGURGARRIA. D. Faustino Díaz de Zerío, navarro de tierras de Viana que en el euskera encontró la clave de su identidad; y unos versos suyos, en vasco, muy bien hechos. M. GARDE.

15: KIROLAK. EUSKAL ESTROPADAK: regatas, deporte de verano; las presenta JOSEMARI, nuevo en esta plaza. Joxemari, que nos llegue con frecuencia tu limpio, tu grato euskera.

ERRUSIA'KO TXIRRINDULARIAK NAFARROA'N. Los rusos, en la Vuelta a Navarra, una novedad y unos triunfadores.

16: BAZTANDAR BATEN BERTSO ZAARRAK: Viejas estrofas de un baztán. M. GARDE. Viejas: (final del S. XVIII, principios del XIX); y curiosas: no es frecuente la estrofa de siete versos, especie de seguidilla (dabiltzentxoá?). Tarea para eruditos. Son de Francisco de Irigoyen, de Errazu; nos las brinda su descendiente, el Sr. Marqués de Jauregizar, cuya amistad nos honra.

## BERTSO ZAARRAK

## BAZTANDAR BATEN

## GARDE'TAR M.

Bertso auek, Jauregizar'ko Markes Jaunak billatu zituen bere etxeko paperen artean. Amairu bertso ziren; zorritzarrez, izenburua ta bi aurreneko bertsoak galduak dira.

Errazu'n, 1766'gn. urtean sortu zen Irigoyen eta Larrea'tar Frantzisko Jaunak idatziak izan ziren. Gaston eta Iriarte'tar Ana Maria Andrearengandik lagunduz geroz, apeztu zen Jaun ori, 1814'gnean. il zelarik.

Orain erabiltzen ez den moduan idatziak dira ekartzen ditugun bertsoak; euskara zarrean, Baztan'goan, jakiña.

Egilleak idatzi bezala, argitara ematen dizkugu; bakoitzak ikus ditzala ta jakintsuenek ondorioak eman diezazkigutela. Idazteko eran zalantza batzuk oartuko ditu edozeinek: bano/baño; gabian/gavaz. Baiña, «h»'ri buruz, argi-argi ikusten da ez duela gure baztandarrak «h» erabiltzen, latin-itzetan baizik: christau, humilian, hostian; au, or, ala, onela, orrela, nai, emen, eta antzekoak, beti «h» gabe.

Dudarik gabe, erdararen bertsogintza ezagutzen zuen Irigoyen'dar Frantzisko'k: zazpi lerroko bertsoak, eta neurri laburrean, «seguidilla» edo «dabiltzentxoá»'ren usaia dauka.

Jauregizar'ko Markes Jaunari eskerrak ematekoan, betiko eskea, gure aspal-diko adiskidetasunari eutsirik: aren euskal jatorriaren paperetan euskarazko zerbait billatzen ba'du, argitara eman dezala. Berak ain maite duen euskal kulturarengatik!

Arima nerea,  
considerazazu;  
nere christau maitea,  
otoy, pensazazu;  
ta zure goguan  
beti iduquizazu  
Dagoena onela munduban.

O, cer pensatzen dut  
nic egun guztian?  
Cer nic eguiten dut  
egun eta gabian?  
Ez dut nic pensatzen  
gauza ain aundiyan;  
ala ez dut adoratzten...

Yaun paregabea,  
adoratzen zaitut.  
Yaun guztic maitea,  
nic maitazen zaitut;  
bada, Aldarian,  
or icusten zaitut  
modu guztic humilian.

Andia izan ta ere,  
guztlen gañean,  
ez duzu batere  
ezagun hostiyan.  
Zu or sinesturic  
modu admiragarriyan,  
gaude guztic arrituric.

Bano, Jesus ona,  
minzatu bear dizut,  
naiz bada gizona,  
au galdetzen dizut:  
Cer gusto cenuben  
—aditu nai duzut—  
orrela guelditzeco emen?

Ai, christau maitea,  
erraten dirazu:  
naiz zure Yabea,  
bada adizazu.  
Amorec ninzala,  
otoy sineszazu,  
yarri nagon bezala.

Nere atseguinac  
dire guizonaiquin;  
nere aleguinac  
izatea beraiquin.  
Ala nai izan nuben  
—milagro andiyaquin—  
guelditu zubequin emen.

Amoriyo onetaz,  
nor da orai oroizen?  
Mundu ero orretaz  
zarate zoratzten.  
Ah, esquer gabiac,  
nola da au pasatzen,  
esquer gaisto emallac?

Gavaz ta egunez,  
Ni beti elizan;  
zubec casuric ez,  
baicican gutitan...  
Ah, christau eroac,  
nai duzube izan  
orre esquer gaistocoac?

Munduco aundiyan,  
aconpañatubac;  
ta Nitaz guztiyac  
arras atzendubac.  
Ah, viotz gogorrac!  
Ah, enganatubac!  
Zarate neretaz sorrac.

Lagun onarequin  
egoin nai duzube;  
baño, gutirequin  
logratzen duzube.  
Ona emen nago,  
Ni nai banazube;  
Ni bizin onic ez dago...

IRIGOYEN'DAR F.  
(1766-1814)